

10 DESBERDINKERIAK
MURRIZTEA



HELBURUA: Udalerriko bertako desberdinkeriak murriztea

GJH honen helburu nagusia pertsona guztien gizarte inklusio, inklusio ekonomiko eta inklusio politiko osoa eta aukera-berdintasuna gizarteko sektore guztietan sustatzea da.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

1. Talde desberdinen ongizatea sustatu eta eskaintzen diren baliabide eta zerbitzuak:
 - Haur, gazte eta nerabeak
 - Adineko pertsonak
 - Aniztasun funtzionala duten pertsonak
 - Atzerrian jaiotako pertsonak
2. Etxebizitza babestua

ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?


Haur eta nerabeak

Zarautzen **biztanleriaren % 14ak inguru** (Open data Zarautz, 3.016 biztanle 2020 urtean) **14 urte baino gutxiago ditu**.

4-11 urte

Ludotxo ludoteka, haurrentzako jolasak eta tailerrak egiteko espazioa eskaintzen du.

Ludotekako erabiltzaileak (iraila-maiatz)




Iturria: Zarauzko Udala

12-18 urte

Haize Orratz gaztelekua, nerabeen arteko elkarbizitzarako baliabideak eta tresnak eskaintzen dituen zerbitzua

Gaztelekuko erabiltzaileak (uztaila)



Iturria: Zarauzko Udala

18-30 urte


Gazte zerbitzua, gazteen arteko elkartegintza eta partaidetza sustatuz eta gazteak emantzipatu eta euren ikasketak eta lan esparruetan arrakasta lortzeko laguntza eskainiz.

Udalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuez aipatzekoa da gazteen aisialdia eta dinamizazio helburu duten elkarte edo eragileen lana, zeintzuek Udaleko Gazteria sailarekin elkarlan estua duten:

Gizarte zerbitzuetatik arrisku edo babesgabezia egoeran egon daitezkeen haur eta nerabeen familiei zuzendutako zerbitzuak eskaintzen dira baita ere: Familiei zuzendutako aholkularitza eta orientazioa; Eskuhartze soziohezitzailea eta psikosoziala; Haur eta Nerabeen kalteberatasun eta arrisku egoerak goiz antzemateko eta eskuhartzeko programa.

Adineko pertsonak


Zarauzko **biztanleriaren % 21ak 65 urte baino gehiago ditu** eta, 2016tik Zarauzko biztanleriak zahartzera egin du.




2020 urtean 10.000 biztanleko 328 pertsonak zutne I, II edo II graduko mendekotasuna Zarautzen, EAEkoarekin alderatuz balioa baxuagoa delarik (450, 2018an)

Iturria: GFA eta Euskal Udalerriek GJH egiten dieten ekarpena II Txostena, lhobe

Adineko pertsonak dituzten **beharrei erantzuteko** Udalak besteak beste ondorengo **baliabide eta zerbitzuak** eskaintzen ditu: Tele asistentzia zerbitzua bakarrik bizi diren pertsonen laguntza eskaintzeko; Sendian programa, Mendekotasunari lotutako prestazio ekonomikoak, Laguntza teknikoak, Menpekotasuna duten adinekoei zuzendutako eguneko arreta zentroa, Adinekoei zuzendutako tutoretzapeko apartamentuak eta Etxez-etxeko laguntza zerbitzua.



Adineko pertsonen zuzendutako egoitzetako plaza kopurua EAEkoa baino nabarmenki baxuagoa zen 2019an eta itxaron zerrenda nahiko handia da.



Iturria: GFA eta Euskal Udalerriek GJH egiten dieten ekarpena II Txostena, Ihobe

Eguneko zentroko, plaza kopurua eta EAEko batez bestekoa antzekoak ziren 2019an (105 eta 108 hurrenez hurren, 65 urte baino gehiagoko 10.000 biztanleko). Tamaina ertaineko udalerriekin alderatuz, Zarauzko plaza kopurua altuagoa da, 10.000-40.000 biztanleko udalerrietako batez besteko datua 95 baita).

Zahartze aktiboa sustatzeko ekimenak ere gauzatzen dira, adineko pertsonak gizartearen parte hartzea sustatuz, bakoitzaren behar eta gaitasunen arabera.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak


Dibertsitate funtzionala duten pertsonen zuzendutako zerbitzu eta aktibitateak antolatzen dira, aktibo mantendu eta autonomia sustatu eta eremu komunitarioan txertatzeko helburuarekin: Kukufraka aisialdi programa (dibertsitate funtzionala duten 12-20 urte bitarteko gazteei zuzendua); Kirol jarduerak; Udaleku irekiak; Ludoteka; Zaintza zerbitzua; ...

Duela urte batzuk **Dibertsitate Funtzionaleko Mahaia** martxan jarri zen, udala eta talde desberdinen topagunea, elkarrekin lan egin eta informazioa partekatzeko espazioa delarik.


Atzerrian jaiotako pertsonak

Atzerrian jaiotako 1.999 pertsona daude Zarautzen 2021 urtean, honek biztanleriaren %8,6a suposatzen duelarik. Portzentaje hau Gipuzkoakoa (%11,3) eta Euskadikoa (%11,2) baino txikiagoa delarik (Zarauzko Udala).

Iturria: Zarauzko Udala



Duela urte batzuk atzerrian jaiotako pertsonen gehiengoa emakumezkoa bazen ere, gaur egun emakume eta gizonen arteko proportzioa partekatzen ari da.



Atzerrian jaiotako biztanleriaren gehiengoa amerikarra da (batez ere hego eta amerikarrak), %76a suposatzen du 2022an, Nikaraguan jaiotakoak direlarik nagusi. European jaiotako pertsonak %12a ordezkatzeko dute, Afrikarrek %8a eta Asiakoek %4a.

Iturria: Zarauzko Udala

Udalak Migraziorako Itun Sozialarekin bat egiten du, migraziorako harrera- eta integrazio-esparru bat adostu delarik. Testuinguru honetan, Udalak hainbat baliabide eskaintzen dizkie pertsona migranteei Zarautzen integratu daitezkeen laguntzeko, nagusiki 3 arlo jorratzen direlarik:

- Harrera edo **ongi etorria**
- **Integrazioa**, elkar-ezagutzaren bitartez
- **Sentsibilizazioa** eremu desberdinetan (ikastetxeetan, gizartean orokorrean,..)

Honetaz gain, **Nazioarteko babesa eskatzen dutenei zuzendutako arreta zerbitzua** eskaintzen du udalak, errefuxiatuak hartzeko eta integratzeko proiektua hain zuzen ere, 2017 urtetik 18 familia (54 pertsona) artatu direlarik Zarautzen programa honen testuinguruan. Udalak errefuxiatuei zuzendutako harrera plaza edo apartamentuak ditu baita ere.

Etxebizitza babestua

Bazterkeria jasateko arriskua duten pertsona eta taldeen **zailtasun nagusietako bat etxebizitza lortzea da**, hare gehiago Zarautzen, etxebizitzaren prezio altua eta alokairuko etxebizitza parkearen eskasia dela eta.

- Alokairuko etxebizitza: parkea handitu eta hutsik dauden etxebizitzaren kooperatiba murrizte aldera, hutsik dauden etxebizitzetako IBI zergaren igoera adostu zen, %100koa izanik.
- Udalak azken urtean babestutako etxebizitzaren parkea handitzeko zenbait etxebizitza promozio gauzatu ditu eta gauzatzen ari da Aldapeta eta Salberdin eremuetan.

Zarautzen kasuan, 2021ean Etxebiden 1.470 etxebizitza eskari jaso dira, horietako gehiengo zabala etxebizitza erosteko eskariak izan direlarik (1.020 eskari) eta alokairurako 450 eskari soilik jaso ziren.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Babesgabetasun egoerak goiz atzeman eta erantzuteko programa:** lanketa espezifikoa egitean da, batez ere haurrak dauden eremuetako zerbitzuekin, babesgabezia egoerak ahalik eta bizkorren detektatu eta esku hartzeko.

1.

Haur, nerabe eta gazteak



- **Ludoteka eta gaztetxokoa.**
- **Zarautz Herri Hezitzailea programa,** zeinetan umeak erdigunean hartuta, udaleko hainbat sailen artean ekimen espezifikoak lantzen dira
- **Ikaslagunak:** programa: Ikasleen artean berdintasun baloreak sendotu eta inklusio eta integrazioa sustatzeko helburuarekin, hezkuntza eta gizarte zerbitzuetako kultur aniztasuneko teknikarien artean burutzen dena.

2.

Adineko pertsonak



- **Adinekoen Mahaia:** bertan udalerrian adineko pertsonen zuzendutako ekintzak sustatzen dituzten elkarteek parte hartzen dute, udalarekin elkarlanean.

3.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak



- **Dibertsitate funtzionaleko Mahaia,** elkarte desberdinen topagunea, zeinak ekintza desberdinak antolatzen dituen.

4.

Atzerrian jaiotako pertsonak



- **Bizilagun berrientzako harrera gida:** Zarautzera etortzen diren bizilagun berriei zuzendutako argitalpena, zeinetan herrira iristean izan ditzaketen oinarrizko beharrak betetzeko laguntza eta informazio praktikoa zehazten den, hala nola, udalerrian dauden zerbitzuei, programei eta ekimenei buruzko informazioa azaltzen den.
- **Berrelkarketa programa,** familia migranteak elkartzen direnerako laguntza taldea da, egoera berrira egokitzen laguntzeko helburua duena.
- **Nazioarteko babesak eskatzen dutenei zuzendutako arreta zerbitzua.**

5.

Etxebizitza babestua



- **Etxebizitza babestuen sustapena.** Azken urtetan babestutako eta prezio-tasatuta 220 etxebizitza baino gehiago eraiki edo eraikitzen ari dira Zarautzen eta datozen urtean bultzada nabarmena ematea aurreikusten da.